

Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu zentralaren arteko bake fiskala

(Fiscal peace between the Basque Government and the central Government)

AIZEGA ZUBILLAGA, Joxe Mari

Finantza Zuzenbideko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel Lardizabal, 4
20018 Donostia
dppaizuj@sd.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 95-96]

K

ontzertu
Ekonomikoaren inguruan, Bake fiskala deitutako hitzarmen bat sinatu dute Eusko Jaurlaritzak eta Estatuko Gobernuak, auzia epaitegietatik atera eta arazoei adostasunezko irtenbidea emateko asmoz.

E

l Gobierno Vasco y el Gobierno central español han suscrito la denominada Paz fiscal, un convenio que tiene por objeto sacar el contencioso de los tribunales y buscar para la problemática una solución consensuada.

Z

e Gouvernement Basque et le Gouvernement central espagnol ont souscrit la dénommée Paix fiscale, un accord qui a pour but de retirer le contentieux des tribunaux et de chercher une solution consensuelle au problème.

Urtarrilaren 18an Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuako Gobernuaren ordezkariak bake fiskala deitutako hitzarmena sinatu zuten. Akordio honekin Kontzertu Ekonomikoak jasan duen judizializazioari amaiera eman nahi izan zaio. Azkenaldian Kontzertu Ekonomikoaren aurkako sententzia anitz eman da, gehienetan Estatuak berak tarteraturiko errekurtsoen ondorioz. Europar Batasuneko erakundeek ere hainbat ekimen burutu dute arau foralen aurka.

Akordioaren helburu nagusia Kontzertu Ekonomikoa epaitegietatik ateratzea izan da. Estatuako Administrazioaren eta Foru Ogasunen arteko kolaborazioa bultzatu nahi da, sor daitezkeen eztabaidak judizialak ez diren bideak erabiliaz konpon daitezzen.

Estatuko ordezkariak eta euskal ordezkariak adostasunez onartu zituzten erabaki garrantzitsuenak ondorengoak izan ziren:

- Kontzertu Ekonomikoa defendatzeko konpromisoa: Kontzertuaren aldeko aldarrikapena egiten da. Erakundeek konpromisoa hartzen dute bai Estatu mailan, baita nazioarte mailan ere, bere defentsarako beharrezkoak diren ekimen guztiak aurrera eramateko.

- Arau Egitasmoak Aztertzeke Batzordea: zerga-arauak onartu aurretik, batzorde honek aztertuko ditu Kontzertua errespetatzen duten ala ez erabakitzeke.

- Estatuak aurkezturiko errekurtsok erretiratzea: Estatuako Administrazioak Lurralde Historikoei onarturiko zerga-arauei kontrako errekurtsok erretiratzeke konpromisoa hartzen du.

Estatuak bere errekurtsok erretiratzearekin, bertan behera geratuko da Europako Auzitegian erabakitzeke zegoen judizio-aurreko arazoa, EAeko Auzitegi Nagusiak Estatuak tarteratu zituen errekurtsok batzuk zirela eta aurkeztu zuena. Helegiteak erretiratzen baldin badira, Europako Auzitegiak ez du zeresanik.

- Lurralde Historikoetako erakundeek aurkezturiko errekurtsok erretiratzea: Foru Lurraldeetako erakundeek Auzitegi Gorenaren aurrean tarteraturiko kasazio-helegiteak erretiratzeke konpromisoa hartzen dute.

- Foru Arauen aldaketa: Foru Aldundiek indarrean dauden zenbait arau deseman beharko dituzte, eztabaidatuak izan diren pizgarri fiskalak alegia; hots, opor fiskalak deituak izan direnak eta 2.500 milioi pezeta gaintzen dituzten inbertsioek duten kreditu fiskala. Deseman behar diren pizgarri fiskalak izan dira Estatu espainiar eta Europa mailan eztabaida gehien sortu duten arauak. Aldi berean, Aldundiek inbertsioa

bultzatzeko dituzten pizgarri fiskalak murrizteko hitza ematen dute.

Sinaturiko hitzarmenak ez du iraupen eperik. Hala ere, Kontzertu Ekonomikoan oinarritzen da, eta egun indarrean dagoen Kontzertuaren Legeak 2001. urtean amaitzen du bere iraunaldia. Ondorioz, ikusi egin beharko da Kontzertu Ekonomikoa birnegoziatzen denean bake fiskala nola gauzatzen den.